

Idea, ardatz eta apustu nagusiak. Herrigintzaren inguruko gogoeta.

## **I. Zergatik herrigintza ardatz nagusi bezala? Zergatik diogun herri mugimendua tresna izateaz gain helburu ere badela.**

Bere kabuz antolatuta (auto-antolatuta, alegia) dagoen herriak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena. Herritarrak beraien kabuz antolatuta egotea, ezinbesteko baldintza dugu herriak beraien historia propioaren protagonista bilakatzeko. Baditugu historiako beste une batzuetan zein gaur egunean bertan herrigintza esperientzia ugari; berauek era kritikoan hausnartuz bide horretan lagungarri izan ahal zaizkigun hainbat argibide lortu ditzakegu.

Herritarren antolakuntzarako gaitasun honi eta beronek sortzen dituen espazioei (beraien muga, gabezi eta akats guztiekin) herrigintza deritzogu. Herrigintzaren funtsa herritarrak konektatu eta artikulatzea da. Bere logika propioetatik abiatuz (logika merkantilista eta burokratiko-instituzionalak alboratuz) jendartearen antolakuntza beste modu batez produzitu dezake, elkarbizitza eta ingurune naturala errespetatuz eta bizitzaren birsortze prozesuak erdigunean ipiniz. Zertaz ari gara ordea bizitzaren birsortzea aipatzen dugunean? Bizitza posible eta duina izan dadin kontuan hartu eta zaindu beharreko dimentsio ezberdinez. Bizitza ezin da ulertu kontzeptu biologiko huts bezala, bizitzak dimentsio ezberdinak batzen ditu: soziala, emozionala, biologikoa, ekologikoa,... Esparru guzti horietan kokatzen diren behar ezberdinak asetzea da bizitza birsortzea, bizitza zaintzea, alegia. Eta bizitza zaintzea ez da norbanakoaren esparrura mugatzen ahal, jendartearen esparru guztiak zeharkatzen dituen printzipioa behar du izan.

## **II. Gaur egungo gizarte ereduari kritika: zeren parean gaude?**

Gaur egun, merkatu kapitalistak eta administrazio publikoek logika merkantilista eta normatibistak ezartzen dituzte gure bizitzetan. Ikuspegi horiek gure bizitzak ulertzeko moduetan barneratuak ditugun heinean, herritarrok logika hauek nahi baino gehiago birsortzen ditugu, eta askotan herrigintza ez da aparte geratzen den espazioa.

Patriarkatuak, kapitalismoari eta burokraziari ezinbesteko oinarri ideologikoa eskaintzen die. Gizakia eta natura banatuz, eta emakumea natura bezala domeinatu beharrezkoen esparruan kokatuz, gizakia gizon bilakatu du. Eta gizona gizon izan dadin eta emakumea haren subordinatua beharrezko mekanismoak jarri ditu martxan: sexu bereizpena, zapalkuntzen naturalizazio eta biologizazioa, hezkuntza eta hizkuntza, lanaren banaketa (asignaturiko) sexuaren arabera, sexualitatearen definizio hertsia eta bestelako sexu-aukeren baztertzeta...

Merkatuaren eta botere administratiboaren esparruetan nagusitasuna bereganatu duten eliteek (g)izaki eta giza-talde subordinatu egin nahi gaituzte, egiteko eta eragiteko ahalmena kenduz edo murriztuz. Gure eskuetan ez dauden eta gutxi batzuen etekinak handitzeko diren politika "estrategikoak" ezartzen dituzte, inguru sozialean eta naturan oso ondorio latzak dituztenak. Etengabeko garapenaren ideia desarrollistaren izenean eta amaigabeko hazkundearen logika industrialean oinarritutik, guztion behar eta nahiak artikulatu beharko lituzkeen interes komuna alde batera utzita, interes publikoaren izenean aritzen zaizkigu, berau aipatu era instrumental eta maltzurtean erabiliz.

Hau guztia dela-eta, pentsamendu feministak planteatzen duenaren haritik, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka nabarmena da: akumulazioaren eta etekinaren logika bateraezina da bizitzaren eta elkarren zaintzaren logikarekin.

Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka hau hainbat esparrutan soma daiteke. Baditu gatazka horrek bere alderdi ideologiko eta etikoak, eta baditu halaber alderdi politiko zein estrukturalak. Alderdi ideologikoek materialismoari, lehiakortasunari edo handinahiari egin diezaiekete erreferentzia, besteak beste, eta estrukturalak aldiz merkatu laboralaren prekarizazioari, etxebizitza lortzeko zailtasunei edo errepresio sozial eta politikoari, adibidez. Bi alderdi hauek elkar-loturik presente daude gizarte bizitzaren esparru denetan eta ezinbestekoa da biei erreparatzea gizarte ereduari kritika egin nahi badiogu. Batean eragin nahi izatea bestean eragin gabe ahalegin hutsala litzateke, eta alderantziz.

Egungo bizimoduak mina, insatisfakzio larriak eta gaixotasunak sortzen dizkigu eta bizitza duina izatea ekidin. Bizitza duina, orekatua eta harmoniatsua konkistatzeko, ezinbestekoa da eredu honek sortzen dizkigun amorru, frustrazio eta ezinegonak elite politiko eta ekonomikoen hegemonia kuestionatzeko indar politikoa bilakatzea.

Gaur egun kuestionatu dezakeguna jada ez da soilik sistema ekonomiko edo politiko bat, baizik eta zibilizazio modu osoa, bizitza ulertu eta munduan egoteko era konkretu hau: patriarkatuan, naturaren suntsiketan eta jendartearen desartikulazioan oinarritzen den modernitate kapitalista. Argi esan dezakegu zibilizazio modernoaren handikeria (antropozentrismoa) eta merkatu kapitalista patriarkalaren itsukeria bizitzarako beharrezko diren baldintzak akabatzen ari direla.

Krisi ekologiko latza eragiteaz gain, gizarte antolakuntza eredu honek subordinazio eta bortizkeria anitzak birsortu eta indartzen ditu. Zapalkuntza modu anitzek erresistentzia modu anitzak sortzen dituzte: emakumeena, langileena, migranteena, gutxiengo linguistiko eta kulturalena, disidente sexualena... Horren ondorioz eraldaketa sozialerako agentea ez da bakarra eta monolitikoa, subjektu plurala eta sarritan gatazkatsua baizik. Zapalkuntza eta diskriminazio horiek (g)izaki ezberdinetan era ezberdinetan pilatu eta artikulatzen direla ulertu beharra dugu, onartuz kolektibo ezberdinek izan ditzaketan espazio propioak, baina aldi berean elkarlanerako guneak artikulatuz. Elkarlanaren espazioa, ordea, desorekatua eta gatazkatsua dela onartu behar da, eta egoera horri aurre egiteko borondate, jarrera eta mekanismoak topatu. Izan ere, dibertsitate hori funtsezko ardatza dugu emanzipazioaren aldeko borroketan.

Euskal Herriaren kasu espezifikoan, zapalkuntza nazionala aipatzea ere beharrezkoa dugu. Ez beste edozein zapalkuntza baino garrantzitsuagoa dela ulertzen dugulako, baizik eta zapalkuntza mota espezifikoa delako. Gure herriaren hizkuntza eskubideak eta kultur eskubideak eskubide sozialak ukatzen dituen logika berberak ukatzen ditu. Azken finean, herri honek bere egitura sozialaz erabakitzeke duen ezintasun bera du bere izaera nazionalaz erabakitzeke.

Bide honetatik autodeterminazioa eskubide bat izateaz harantzago, komunitateak antolatzeke era bat da, erabakitze ahalmen kolektiboan oinarritzen dena. Autodeterminazio eskubidea (zilegizko) eskaera politiko izatetik praktika kolektibo sozialki eraldatzaile izaterako urratsa eman dezan ezinbestekoa dugu soziala eta pertsonalaren arteko muga problematizatzea. Izan ere, autodeterminazio kolektiboak autodeterminazio pertsonalarekin batera doanean izan daiteke benetan eraldatzailea.

Era berean, euskalgintzako hainbat kide eta eragilek askotan gogorarazi diguten bezala, gure kultura eta hizkuntzaren babesa ezin daiteke defentsa hutsean geratu, ez eta aldarrikapen politiko hutsean ere. Gure hizkuntza eta kultur eskubideak defendatzeaz gain, nahi eta nahiezkoak izango ditugu gure herria, hizkuntza eta kultura eraikitzea, sortzea eta eraldatzea, hala nola lan hauek ekimen kolektibo eta komunitariotan oinarritzea. Nazioa, azken finean, komunikazio esparrua da eta gureak euskaraz egitea nahi dugu.

### **III. Egunerokotasuna borroka-esparru bezala: bizitzaren birsortze prozesuak**

Elkarbizitzaren dimentsio ezberdinek (afektiboek, kulturek, ekonomikoek, politikoek...) bat egiten dute gure egunerokotasunean; gure baitan eta ingurukoekin harremanean era nahasi eta gatazkatsuan bizi ditugu dimentsio ezberdin hauek. Noski, elkarbizitzaren dimentsio edo gune ezberdin hauetan herritarrok dugun erabakitze ahalmena aldakorra da. Erabat determinatua egon ez arren, patriarkatuaren, merkatuaren eta burokrazia administratiboaren mekanismoek baldintzatutako espazioak dira.

Zentzu honetan, herrigintzaren ikuspegi klasikotik harantzago joanez, pertsonal bezala definitu izan ditugun gune ugari herrigintzaren espazioen baitan ulertzea beharrezkoa dugu, “norberaren etxeko ateetatik barrura” dauden espazioek duten gaitasun eraldatzailea garatzeko. Feminismoak duela hainbat hamarkada planteatu zuen (publikoa eta pribatuaren arteko banaketa zalantzan jarri zuenean) arlo pertsonala ere politikoa dela. Horri jarraiki etxea eta lagunartea ere herrigintza espazio bezala ulertu ditzakegu, eta ildo horretatik, herrigintzaren harreman eta funtzionamenduak kritikoki ber-definituz, etxeari, lagun-arteari, auzoari, herriari eta munduari beste pentsamolde eta praxi ez-kapitalista eta ez-patriarkalarekin eutsi beharra diogu.

Eguneroko bizitzaren unitateak, hurbilen sentitzen ditugunak ere, ez dira unitate harmoniotsuak, botere harreman asimetricoek eraiki ditugu eta ondorioz gatazkatsuak dira, ikusgarritasun maila ezberdinekin ordea. Emakume eta gizonen arteko asimetriak horren adierazle nabarmenatarikoak lirateke. Bizitzaren birsortze prozesuak bermatzeko beharrezkoak diren zeregin eta zaintza guztiak ere modu orekatuan eta ardura-kidetasunez banatu eta gauzatzea gure bizitzak des-merkantilizatu eta bizitza mespresatzen duten subordinazio modu ezberdinei aurre egiteko bidea litzateke.

Hausnartu behar dugu zeintzuk diren subjektu egiten eta humanizatzen gaituzten harreman eta funtzionamendu motak eta zeintzuk objektu bihurtzen eta sakabanatzen gaituztenak.

Egunero eta uneoro ari gara politika egiten: ez dugu bakarrik kanpora begiratu behar, gure baitan ere (maila pertsonalean zein kolektiboan) asko dugu berrikusteko. Aldi berean zapaltzaile eta zapaldu bezala ulertu behar ditugu geure buruak. Norberarenganako errespetu eta onarpenetik abiatuz gure buruak, gorputzak eta bihotzak deskolonizatu ditzakegu, nahi baino gehiago barneratu ditugun eredu patriarkal, kapitalista eta liberalak kuestionatuz eta baztertuz.

Prozesu hauek etengabeak, irekiak eta amaierarik gabekoak dira. Inor ez da betirako askatzen edo subjektu emanzipatzaile eta eraldatzaile bezala osatzen.

Aurrekoa aintzat hartuz, herrigintzaren logikak bizitzaren logiketara hurbildu beharko lirateke:

beharrezkoak ditu elkartruketa, partiketa, elkarlana, laguntza, elkartasuna eta kidesun zein batasun sentimenduak; funtzionamendu anitzak, horizontalak eta malguak; izaki eta gizakien dibertsitatea aintzat hartzea eta artikulatzea... Laburtuz, elkarren arteko dependentzia positiboki ulertuz errespetuan oinarritutako bizitza eraikitzea.

Gure hortzmuga ideologiko eta politikoak definitzeko, herrien historian zein gaur egunean eredu kapitalista patriarkalaren logiketatik kanpo egon diren esperientzia eta saiakerak identifikatu, ulertu eta kritikoki berrikustea argibideak eman diezazkiguke.

Ez dago zain egon beharrik: bizimodu eta proposamen politiko kontra-hegemonikoak gure eguneroko praktika eta artikulazio politikoetan ereinez nahi dugun mundua gaurtik bertatik bizi dezakegu. Bizitzaren eta elkar-zaintzaren apustu politikoa berretsiz eta sendotuz kultura eta praktika eraldatzaileak sortu behar ditugu, hemen eta orain. Honela lortuko dugu herrigintza kontra-botere eraldatzaile eta efektiboa izatea.

Beraz, diskriminazio eta subordinazioak gainditzeko, harreman eta praktika askatzaileak eraikitzeko, arlo pertsonala, organizatiboa eta estrukturala elkar-loturik dauden esparru bezala ulertu behar ditugu.

#### **IV. Herrigintzaren autonomia: gure logika propioen arabera jardutea.**

Botere harremanen eremua oso zabala da eta ez da sistema politikoan edota erakunde publikoetan agortzen. Hori dela-eta, aginte postuetan dagoena dagoela, eraldaketa soziala ezin daiteke herritarren artikulazio eta antolakuntza gabe lortu. Erakundearen gobernu eta botere harremanak ez dira gauza bera bailiran ulertu behar, eta ondorioz herrigintzak bere erreferente, praktika eta sormen prozesu propioak beharrezko ditu, hala nola hauen autonomiari eustea.

Alta, batzuetan gobernuak hurbilagoak izango dira, lan propositiboa areagotzeko edo gobernu horri herri mugimenduari oztoporik ez jartzeko exigitzeko aukera emanaz. Hortaz harantzago, kultura delegazionistak baztertu eta informazioa, eztabaida soziala eta erabakitzearen eskubidearen bitartez, politika publikoak egiteko orain arteko moduarekin amaitu eta interes komunak defendatuko dituen kudeaketa eta artikulazio modu herrikoiak abiatzea beharrezkoa da.

Ez bedi gaizki ulertu, estatua eta administrazio publikoak tira-biran eta norgehiagokan dauden eremuak izaki, balantza horietan eragiteko asmoa ez da alboratu behar. Borroka horretan, ordea, herri mugimenduak bere praktika, dinamika eta egituren autonomia mantentzea oinarritzat jotzen dugu. Herri hau instituzioetatik pasatzen da, baina ez da instituzioetan edo instituzioetatik sortzen.

## V. Subjektibitate inkonformista eta eraldatzaileak: harreman eta praktika askatzaileak.

Praktika eta balore liberal eta merkantilistek subjektibitate otzanak behar dituzte beraien mantenturako konformismoa eta etsipena profitatuz. Aktibismo sozio-politikoaren esku dago horri aurre egitea. Ezagutza botere tresna den heinean, herri mugimenduak eta oro har kritikoak diren gizaki eta giza-taldeok ezagutzaren inguruan dagoen kontiendan parte hartu beharra dugu. Oinarrietatik eta egunerokotasuneko esperientziaren indar eraldatzailetik abiatuz, ideia eta planteamendu kritikoak sortzeko gaitasuna landu beharra dugu. Eta beharrezkoak diren baliabideak, irekiera eta irudimena erabili teoria kritikook bizirik eta mugimenduan egon daitezen, totem eta ukiezineko sinboloak izan ordez emantzipazioan lagundu dezaketen tresnak izan daitezen.

Ildo honetatik, egunerokotasunean gizaki eta kolektibitate inkonformista eta eraldatzaileen erreferenteak eraiki ahal izatea herrigintzak duen beste erronketako bat da. Bide horretan, etsipenari eta tristurari aurre egin ahal izateko berotasun emozionala duten harremanak eraiki behar ditugu gure komunitate politikoen baitan. Honela gure atxikimendua, inplikazioa, kidetasuna, konpromezua eta lanerako gogoia lantzen ditugu era kontziente batean.

Arestian aipatu haritik jarraituz, afektibitatea eta emozionalitatea ez dira soilik aspektu pertsonalak zein subjektiboak, eta beraz, berauek kontutan hartu eta zaintzea oinarrizko printzipio politikoa litzateke. Herri mugimenduak adeitasunez, errespetuz eta bihotzez lan egitea funtsezkoa dugu ideia eta proiektuek indarra hartu eta -banatu ordez- batu egin gaitzaten. Izan ere, elkarren zaintza eta afektibitatea printzipio politiko bezala ulertuz eta landuz, batasuna eta subjektibitatea era zintzoan landu ditzake herri mugimenduak.

Gure eguneroko eztabaida eta jardunean gabiltzala, askotan, ideia eta ekintzetan kontzentratzen gara, edozein jardunek daukan aspektu erlazionala albora utziz. Eztabaida politikoari ekitean gure helmugak “arrazoia izatea”, “benetako diagnosia egitea”, “ildoak markatzea”... izan ohi dira. Era berean, ekintza politikoaz ari garenean beronen “emaitzei” egiten diegu so, apenas inoiz prozesuei. Prozesu guzti horiei ezikusia egiteak ez gaituzte indartzen, eta are gehiago esan genezake, ahuldu egiten gaituzte, elkarrekin egoteko, lan egiteko eta borrokatzeko gogoak kentzen dizkiguten heinean.

Era berean, gure jardunetan une ludiko eta artistikoak txertatzea garrantzitsua da, hau da, besteen bihotzak hunkitu eta mugitzeko burutzen dugun jarduna guretzat era hunkigarria, maitagarria eta liluragarria egitea. Gure ideia antzerakoak ez dituzten pertsonak “ukitu” gabe utzi nahi ez baditugu, entzuten jakitea eta apaltasunez (harrokeriarik gabe) hitz egitea funtsezkoa da herrigintza eta kontzientziazio lana indartzeko.

## VI. Bukatzeko, kantu bat:

### ARAUA (GUREA)

Inork ez al du ulertzen,  
nehorena ez zena denena zela ta dela?

Hori da gurea, konpartitzen duguna,  
ez zatikatzen duguna.

Gurea, gurea da.

Ez parteka enea, ez parteka zurea, ez parteka berea  
gurea entitate bat da,  
konprenitzen duzuia?

Izenpetzeek agindurik, arauak ez du zentzurik:

Gal, sal, (ala) hil, ta goza...

Gurea:

Zarata,

lurra eta kalea,

artea eta adarra,

airea,

irria,

historia ta hautua,

ura eta hizkuntza...

Pentsa dezagun gurea,

inoiz ez dezatela

har,

ken,

bil,

ebatsi...

(Willis Drummond taldearen "istanteak" diskotik. (2011, bidehuts diskak)